



Herri txikiak aurrera begira: XXI. mendeko herri eta komunitate bizientzat etxebizitzak



Ira. 20 2024

Kod. G26-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 20 2024

Kokalekua

Zeraingo eliza

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Etxebizitzek herrien egituran, itxuran eta paisajeen ez ezik, zuzeneko eragina dute herrietako bizimodu, erlazio sistema eta antolaketan. Landa eremuan, mendetan zehar baserriak etxebizitza eta lantoki izan dira aldi berean, eta haien funtzioei lotuta antolatu izan dira giza-taldeak, ohiturak, praktika sozialak, eta abar. Azken hamarraldietan, baserriak eraldatzen eta herri txikietan bestelako etxe motak (txaletak, adosatua, pisuak...) areagotzen joan dira. Aurrera begira jarrita, herri txikiak eta haietako komunitateak biziak izan daitezten, etxebizitzaren gainean hausnarketa egitea ere ezinbesteko lehentasuna da. Bizitzeko leku egokiak ez ezik, herri-bizitzarako ere egokiak izan daitezten, balio, kultura eta komunitate ikuspegitik ere begiratzea komeni da landa eremuko etxebizitzaren gaiari.

Uda Ikastaro honetan, aurreko urteetako bideari jarraituz, herri txikien etorkizunari begira jarriko gara, baina XXI. mendean etxebizitzek landa eremuan izan beharreko ezaugarriei erreparatuz, berariaz. Begirada horretan, ordea, etxebizitzari herri-bizitzaren eta komunitatearen ikuspegitik begiratu nahi zaie, eta hortik hausnartu etxe moten (baserri, txalet, pisu...) edota haien izaerari (kooperatiba, jabetza pribatu, publiko, alkiler...) buruz.

Horretarako, Ikastaro honetan hainbat disziplinetatik (arkitektura, landa garapena, soziologia...) egindako hausnarketak eta Euskal Herriko leku ezberdinetako esperientzietako ezagutzak uztartuko dira.

Helburuak

Landa eremuko herri txikietako etxebizitzari buruzko gogoeta egitea herri-bizitzaren eta komunitatearen ikuspegitik.

Euskal Herriko landa eremuko etxebizitzari buruzko esperientzia aurreratu eta inspiratzaileak ezagutzea.

Baserrien inguruan sortutako auzolaneko kulturaren jarraipenerako XXI. mendeko etxebizitza ereduak irudikatzea.

Antolakuntza



Lankidetzak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Programa

2024-09-20

09:00 - 09:30	Erregistroa
09:30 - 09:45	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena
	Sarrerako Hitzak
	Ion Muñoa Errasti Deustuko Unibertsitatea - Ikastaroaren zuzendaria
09:45 - 10:45	“Etxea eta baserria gurean: familia eta gizartearen antolaketa berezia.”
	Igone Etxebarria Zamalloa Labayru Fundazioa - Ordezkaria Akaitze Kamiruaga Garitaonandia Labayru Fundazioa - Ordezkaria
10:45 - 11:45	“Herriaren antolaketa parte hartzearen bidez”
	Koldo Telleria Andueza UPV/EHU - Arkitekto urbanista
11:45 - 12:15	Etenaldia
12:15 - 12:50	“Herri txikiak eta etxebizitza kooperatiboa”
	Arianne Kareaga Irazabalbeitia MU, HUHEZI - Irakaslea
12:50 - 13:25	“Etxebizitzen sustapena Gipuzkoako landa herrietan”
	Xabier Arruti Olazabal Gipuzkoako Foru Aldundia - Lurralde Oreka Berdeko Diputatua
13:25 - 13:45	Ondorio nagusiak eta itxiera

Zuzendaritza



Ion Muñoa Errasti

Deustuko Unibertsitatea

Ion Muñoa Errasti Deustuko Unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko irakasle-ikertzailea da. Giza Zientzietan eta Komunikazioan lizentziatua eta Gizarte Zientzietan doktorea da. Deustuko Unibertsitateko Komunikazio graduko irakaslea eta Komunikazio ikertaldeko kidea da. Intereseko gai nagusiak Komunikazio Publikoa, Iritzi Publikoa eta Komunikazioaren eraldaketa dira.

Irakasleak



Xabier Arruti Olazabal

Xabier Arruti Olazabal (Beizama, 1968). Lurralde Oreka Berdea-ko foru diputatua. Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da eta Landa Garapen eta Nekazaritza Elikagai enpresa kudeaketan Masterra du.



Igone Etxebarria Zamalloa

Labayru Fundazioa

Euskal Filologian lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean 1985ean. ETB Euskal Telebista Publikoan lan egin du, euskara arduradun gisa, eta Euskara Sustatzeko zuzendari kargua bete du Eusko Jaurlaritzan. Gaur egun Labayru Fundazioko zuzendaria da. Batez ere literaturako gaiez arduratu da, hainbat lanen edizioa eta sarrera-azterketak prestatuz. Eta ahozko literaturari buruzko zenbait lanen egilea da.



Akaitze Kamiruaga Garitaonandia

Labayru Fundazioa

Euskal Filologian lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean, 1992an. 1995az geroztik, Labayru Fundazioan dabil, eta hainbat sailetan lan egin du: Hizkuntza, Lexikografia, Etnografia, Kultur Ondarea. Gaur egun, Kultura Ondarearen Saileko arduraduna eta Fundazioko zuzendariordea da. Labayru Fundazioak hainbat erakunderentzat egiten dituen proiektu askotan parte hartu du, euskarri ezberdinetan argitaratzen diren materialak landuz (liburuak, unitate didaktikoak, ikus-entzunezkoak, web-orriak). Zuzendari, koordinatzaile, sortzaile, erredaktore, diseinatzaile eta abar jardun du.



Arianne Kareaga Irazabalbeitia

Lanki- Huhezi Mondragon Unibertsitatea



Ion Muñoa Errasti

Deustuko Unibertsitatea

Ion Muñoa Errasti Deustuko Unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko irakasle-ikertzailea da. Giza Zientzietan eta Komunikazioan lizentziatua eta Gizarte Zientzietan doktorea da. Deustuko Unibertsitateko Komunikazio graduako irakaslea eta Komunikazio ikertaldeko kidea da. Intereseko gai nagusiak Komunikazio Publikoa, Iritzi Publikoa eta Komunikazioaren eraldaketa dira.



Koldo Telleria Andueza

UPV/EHU

Koldo Telleria Andueza (Segura, 1972) arkitekturan lizentziatua da EHUn, Hirigintzan diplomatua ere bada eta Sevillako UPOn eta Antropologian Master bat dauka. Hiri Kolektiboa sortu zuen 2002an eta hirigintzarako parte-hartze prozesu ezberdinak diseinatu, zuzendu nahiz gauzatu ditu Euskal Herriko testuinguru ezberdinetan. Saharan, Mozambiken eta Pakistanen aritua da kooperazio lanetan. EHUko arkitektura eskolan irakaslea da. Gaur egun, hirigintza eta lurralde antolamenduan gizartearekin elkar lanean eta ikerketan dihardu.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-09-20 ARTE
Orokorra	15,00 EUR

Kokalekua

Zeraingo eliza

Zerain Núcleo Gunea, 15, 20214 Zerain, Gipuzkoa

Gipuzkoa